

EUDELeK Tenerifén aurkeztu du Berdintasuna sustatzeko Euskadiko udalen lan-eredu partekatua.

- **Berdinsarea, gaur Tenerifeko Adejen egindako Generoko Berdintasunaren aldeko Jardunaldiaren aztergaia izan da, hurrengo izenburupean: "Sareak Eraikitzea lan-tresna gisa".**
- **Gaur egun, Euskadiko 59 udalerri sareari atxikita daude, hau da, Euskadiko biztanleriaren %75a. Hurrengo urteetan tamaina erdi eta txikiko udalerrietara zabaltzeko asmoa dago.**

Bilbon, 2013ko urriaren 9an. **'Berdinsarea'** Berdintasunaren aldeko Euskadiko udalen Sarea da eta EUDELeK koordinatzen du. Gaur aurkeztu dute aztergai Tenerifeko Eskualdeetako Sareko udalerrien elkarteak antolatutako jardunaldian *"La Construcción de Redes como Instrumento de trabajo (Sareak Eraikitzea Lan-tresna gisa)* izenburupean.

Ibon Uribe, EUDELeko Batzorde Betezarazlearen Berdintasuneko ordezkariak Euskadin Berdintasuna sustatzeko asmoz, burututako ekintza propioak eta beste herri-erakunde batzuekin egindako estrategia bateratuak sustatzeko, Euskadiko udalerriek izandako konpromiso politikoaren ibilbide luzea nabarmendu du. Ahalegin guzti hauek Berdinsareak koordinatzen ditu, Ibon Uriberen esanetan: "Sare honen bitartez, berdintasun alorreko ekintza politikoari ekiteko Euskadik espazio handia sortu zuen". Indarkeriaren emakume biktimei atentzioa emateko protokoloak, planak edo berdintasuneko ordenantzak bezalako hain tresna garrantzitsuak dituzten udalerriak ugaltzeko balio izan du."

EUDELeko Berdintasuneko ordezkariak **Berdinsarea** bezalako espazioek baliabide gutxiago duten udalei eskaintzen dien aukera ere aipatu du. Ibon Uribek gogorarazi duenez, "aukera-kostua, hau da, ezer ez egitearen kostua ere kontuan hartu behar da". "Gainera, kostu gehigarririk gabeko ekintzak ezarri daitezke, esate baterako, *mainstreaminga*, zeharkakotasuna ... Sail bakoitzeko politiketan (gazteria,

ingurumena, euskara, hirigintza ...) berdintasuna kontuan hartuta, ekintza ugari egin daitezke."

Zer da Berdinsarea?

Gaur egun, Sarean 59 udalerri daude (Bizkaian 40, Gipuzkoan 16 eta Araban 3). Euskadiko biztanleriaren %75a ordezkatzeko dute eta urtero atxikimendu berriak dituzte.

Sareari atxiki ahal izateko, udalek **hainbat baldintza** bete behar dituzte: Berdintasun Plana onartuta edukitzea, berdintasun alorreko politikak gauzatu ahal izateko langile propioak edukitzea, sailari atxikitako baliabide material eta ekonomikoak edukitzea, udalerriko emakume-elkarteek parte hartzeko eta haiekin elkarlanean aritzeko bideak erabiltzea eta Udalean parekidetasun falta ezabatzerako zuzendutako araudia edukitzea.

Berdinsarea parekidetasun faltaren arazoaren ziklo osoari ekiteko espazio gisa antolatu da; arazoak diagnostikatu eta eskariak detektatzea, programak diseinatu eta gauzatzea, jarduerak koordinatzea eta etengabeko hobekuntzako ziklo batean horien inpaktuak ebaluatzea.

EUDELEk udalei **tresnak** ere ematen dizkie, formatu desberdinetan: udal mailako protokolo, berdintasun-plan, araudi eta ordenantzak, baina, batik bat, esperientzien elkartrukea.

Ibon Uribek azaldu duenez, lan partekatu honekin "herritarrengana beste bideak erabilita baino errazago heltzen da, eta jarduera hori gero eta aberasgarriagoa izango da, sarea osatzen duten udalen bilakaeraren arabera".

2013-2014 Sareko Lan Plana

EUDEL-BERDINSAREAK aurtengo azken hiruhileko honetan hainbat lan-mahai prestatu ditu atxikitako 59 udaletako teknikari eta politikariek:

- **Generoko Indarkeriari buruzko Batzordea eta Osoko Bilkura**
- **Gazteekiko prebentzioa eta udalerri txikietako aholkularitza**

****** 1) Beldur Barik eta 2) Berdinbidean programak**

- **Basqueskolako emakume hautetsien sarea eta eskola**
- **Berdintasunaren aldeko Udal Ordenantzak prestatzea**
- **Udal lan teknikorako coachinga (Berdintasuneko 13 agente)**

Berdintasun sailekin, elkarteekin eta mugimendu feministarekin egindako topaketak